

BUSTURIALDEA-URDAIBAIRAKO **PLAN EKONOMIKO ETA EKOSOZIAL ESTRATEGIKOAREN PROPOSAMENA** GIZARTE ZIBILAREN ALDETIK

Argitalpen hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegua,
Gizarte kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko sailaren,
Betiko Fundazioaren, Gernikatik Mundura elkartearen eta
Gernika Gogoratuz Bakearen Aldeko Ikerketarako
Elkartearen finantzaketari esker egin da.



GERNIKA SAREA BILDUMA

25. DOK.

Gernika Sarea Bildimaren zuzendaria:

María Oianguren Idigoras.

Argitaratze-koordinazioa:

Mercedes Esteban.

Diseinua eta azaleko irudia:

goikipedia.

Maketazioa:

eMeriel.

© Bakearen Aldeko Ikerketarako Elkarte Gernika Gogoratuz, 2025

Artekalea, 1-1. solairua • 48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)

Tel.: 946 25 35 58

Posta elektronikoa: info@gernikagogoratuz.org

<http://www.gernikagogoratuz.org>





Lan hau **Aitortu-EzKomertziala-EratorririkGabe 2.5 Espainia** **Lizentziaren** mende dago. Aske da lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki komunikatzeko, betiere egiletasuna behar bezala aitortzen bada, helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada eta lan eratorririk sortzen ez bada. Lizentzia honen kopia bat ikusteko, bisitatu <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/>

Lege gordailua: BI-641-97

ISSN: 1136-5811



Argitalpen hau Forest Stewardship Council® ziurtutako paperean inprimatu da (FSC® C014864).



AURKIBIDEA

HITZAURREA	06
01 BUSTURIALDEA-URDAIBAIRAKO PLAN EKONOMIKO ETA EKOSOZIAL ESTRATEGIKOA	08
GIZARTE ZIBILAREN ALDETIK	08
1.1. SARRERA	10
1.2. EGIN BEHARREKO LAU URRATS	11
1.3. LORTU NAHI DEN GARAPEN EKONOMIKO ETA EKOSOZIALERAKO EREDUA	11
1.4. ERRONKA ESTRATEGIKOAK	15
1.5. EPE ERTAINERAKO (4 URTE) ETA LUZERAKO NEURRIAK (10-12 URTE)	15
1.6. PROIEKTU TRAKTOREEN LAU ESPARRU	22
1.7. AZKEN OHARRA	24
02 HAMABI IDEIA NAGUSI BUSTURIALDEA-URDAIBAIKO PLANGINTZA EKONOMIKO ETA EKOSOZIAL INTEGRAL BATERAKO	26

HITZAURREA

Urtebete zehar, Gernika Gogoratuz erakundean, Gernikatik Mundura elkartearekin lankidetzan, eskualdearen etorkizunerako proposamen ekonomiko eta ekosozialen dokumentu bat landu da, eta Busturialdeko elkarte, kolektibo eta pertsonekin partekatu da. Horretarako, Ramon Zallo Elgezabalen hasierako zirriborro baten ondoren, ideiak eta proposamenak kontrastatu dira gizarte-, enpresa-, hezkuntza- eta erakunde-arloetako talde eta pertsonekin egindako sei bilera sektorialetan, gaiak doitu eta begiradak zabalduz. Horri esker itxi ahal izan dira azken bi dokumentu aberatsak, Gernika Gogoratuz erakundeak 2024ko azaroaren 18an eta 19an Gernika-Lumoko Euskal Herria Museoa antolatutako «Busturialdeko etorkizuna: elkarrizketa estrategikoak» foroko pertsonen eta ordezkarien kolektiboen osoko bileran ere zehaztu zirenak.

Eraitza bi hemen jasotako bi dokumentu kolektibo dira. Lehen dokumentua «Busturialdea-Urdaibairako plan ekonomiko eta ekosozial estrategiko bat gizarte zibilaren aldetik» da, eta bigarrena, «Hamabi ideia indartsu Busturialdea-Urdaibaiko plangintza ekonomiko eta ekosozial integral baterako»; hau da, lehenengoaren irizpide-multzo bat.

«Busturialdea-Urdaibaiko Gutun Ekologiko» baten zirriborroak ere eztabaidatu ziren, bai eta gobernantza-dokumentu labur bat ere, «Busturialdea-Urdaibaiko etorkizunerako partaidetza-proposamenak» izenekoak, baina egokitzen joan da zirriborro horiek gehiago garatzea eta haien homologazioa etorkizunerako uztea.

Gernika Gogoratuz, 2025eko otsailaren 17a

01

BUSTURIALDEA-
URDAIBAIRAKO
**PLAN EKONOMIKO
ETA EKOSOZIAL
ESTRATEGIKOA** GIZARTE
ZIBILAREN ALDETIK

Busturialdearen eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren (aurrerantzean, UBE) etorkizun jasangarri eta justua ziurtatu nahi bada, ekonomian eta azpiegitura ekonomiko, ekologiko eta sozialetan jarri behar da arreta, baina ez zaio garrantzirik kendu behar Guggenheim Urdai-bai proiektuari (aurrerantzean, GGU) buruzko eztabaidarekin lotutako elkarriketa publikoari.

Busturialdearen abiapuntua ezohikoa da, eta, horrek, beste eskualde batzuekin alderatuta, tratamendu instituzional berezia izatera behartzen du. 1984an eremua UBE izendatu izanak, eta 1989an erregulatu izanak, alde batetik, balio izan zuen naturagune zabal bat komeni ez ziren esku-hartzeetatik babesteko, baina, beste alde batetik, aitzakiatzat ere erabili zen, praktikan, «sakrifizio ekonomikoko eremutzat» hartzeko, hau da, inbertsio publikoa albo batera uzteko.

Baina horrek ez du esan nahi «sakrifizio ekologikoko eremua» ere izan behar denik, lekuarekin bateraezinak diren esku-hartzeen ondorioz. Dituen 27.878 hektareatik, azaleraren hiru laurden (22.000 hektarea) Biosfera Erreserba¹ dira, eta ez da zilegi, inola ere, bertako Nukleo-eremu² eragitea. Euskal Autonomia Erkidegoko Biosfera Erreserba bakarra da. Eremuaren zatirik handienari —bereziki artadiak, estuarioa, kostaldea, ibai-sarea eta aztarnategi arkeologikoak— Biosfera Erreserba zaintzearekin lotutako hirigintzako murrizketek eragiten diote, eta erakundeen eta arto osoko herritarren ardura da, planetaren eta Euskal Herriaren mesedetan.³ Baina horrek, aldi berean, konpentsazio-politika ekonomiko eta ekosoziala martxan jartzea eskatzen du, bizitza kolektiboa higatzen duen eta beherakada ekonomiko sakona ekarri duen utzikeria ordezkatzeko.

Etorkizunari begira, gainera, aukera bat da. Laborategi handi bat izan daiteke, ekonomia deskarbonizatua eta neutraltasun energetikoa garapen ekosozialarekin eta berrikuntzarekin uztartzeko. Aukera ekosozial horrek justizia soziala, politikoa eta ekonomikoa hartuko lituzke barne, bai eta ingurumen-justizia ere.

Horrenbestez, ezin zaio eman beste edozein eskualderi ematen zaion tratamendu estandarra, bai gaur egun denagatik, bai azken berrogei urteetan egon den utzikeriaren eraginagatik. Zor instituzional historikoa dago. Eta eremua ez da hartu behar Bilbo Handiaren periferia gisa, izaera propioa eta berezia duen eskualde espezifikoa gisa baizik.

Hurrengo puntuetan ekarpen bat egin diogu komunitateari eta hartze-koak diren erabaki instituzionalei, Gernika Gogoratuzek proposatutako dokumentu bat («Busturialdea-Urdaibairako plan ekonomiko eta ekosozial estrategikorako proposamen bat» dokumentua, 2024ko ekaina) eskualdeko gizarte zibileko erakundeekin, tokiko instituzioekin, alderdiekin eta enpresekin kontrastatu ondoren.

Era berean, behar-beharrezkoa da eskualdeko plangintza hasieratik parte hartzailea izatea (eta ez soilik onarpena ematea), eta partaidetza hori eragile guztiekin egitea (ez bakarrik eragile ofizialekin eta elitearekin). Izaera integraleko eta epe luzerako azken plan bat osatze-

1. Guztizko horietatik, 20.877 hektarea basoak eta naturaguneak dira, 558 hektarea ibaiak eta hezeguneak, 5.773 hektarea nekazaritza-lurrak, eta 650 hektarea soilik dagozkio zuzenean bizitegi-, industria- edo zerbitzu-erabilerarako egokia den lurzoru urbanizatuari (% 2,3), bateragarria den baso-ustiapenari eta nekazaritza urriari —nabarmen hondatzen ari da—.
2. Kasu honetan, lau Nukleo-eremuek (estuaria, kostaldea, artadi kantauriarrak eta aztarnategi arkeologikoak) Urdaibaiko ekosistema berezi eta hauskorrenak barne hartzen dituzte; lehentasunezkoak dira eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planan (EKZP) Babes Bereziko Eremutzat jotzen dira. Hau da, ez dira ukitu behar, eta babestu eta hobetu egin behar dira.
3. Bi puntu nagusi gogoratu behar dira. Lehenik eta behin, Biosfera Erreserba dibertsitate biologikoaren kontserbazioa —lehentasun osoa du— eta han bizi diren pertsonen garapen ekonomiko eta soziala bateratzeko pentsatuta dago. Hau da, elkarren beharra dute, eta bizitza kolektiborako irtenbide jasangarriak bilatu

ko, ezinbestekoak dira herritarrei entzuteko eta haiekin kontsultatzeko prozedurak. Ez da mugatu behar GGU proiektuak eragindako protestei erantzuteko konponketa soil batera.

1.1. SARRERA

GGUren kontuak titularrak betetzen eta kezkak eragiten baditu ere, eskualdeko auzi nagusia UBE izendapenak eskualdeko ekosistemetan eta Busturialdearen etorkizun sozioekonomikoan duen eragina da, bertako beherakada leheneratuko duen jarduketa integral baten beharra duela aintzat hartuta. Horixe da planteamenduaren ordena. Lehentasuna ez da «garapen jasangarria hedatzea», erreserban ahalik eta inpaktu gutxien eragiteko; aitzitik, hasierako baldintza da «UBEren Nukleo-eremuetan inpakturik ez izatea». Hortik abiatuta soilik ekin ahal izango diogu iraunkorra eta bateragarria izango den benetako garapen bati.

UBEa, eskualdeko garapen jasangarriko eredua eta gobernantza parte-hartzailea uztartu behar direnez, ezin da jasangarria ez den erabakirik hartu. Eta lehentasunen ordena hau da, hain zuzen ere: natura babestea iraunkortasun-berme osoarekin, batez ere, Nukleo-eremuetan; Busturialdeko ongizate ekonomiko eta ekosoziala; eta logika publiko-komunitarioa duen egitura instituzionala, gobernantza demokratiko eta parte-hartzailearen bidez kudeatua, aurreko bi lehentasunak behar bezala betetzen direla bermatzeko.

Azken hilabeteetan, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) faktore berri bat gehitu dute Guggenheim Urdaibai proiektuak izan duen kontestazio sozial handiarentzako erantzun behartu gisa: Busturialdea Lehentasunezko Jarduketa Eredu (LJE) izendatzeko proposamena. Horrek aukera emango lioke eskualdeari lau urteko Berpiztu programan edo epe ertainerako proiektu traktoreen⁴ plan batean sartzeko, eta ez epe luzerako plan global batean, nahiz eta horixe eskatzen den duela urte batzuetatik, baina arrakastarik gabe.

Hasteko, proposamen berriak erakusten du Guggenheim Urdaibai proiektua ez dela ekonomiaren eragilea, eta ezin duela ordezkatu gainbeheran dagoen eskualde batek, bultzada berezia eta dimentsio anitzekoa eskatzen duenak, behar duen merezitako plan ekonomiko bat.

Hori dela eta, dokumentu honetan albo batera utzi da Guggenheim Urdaibairen kontua, nahiz eta plan instituzionalean ziurrenik proiektu hori sartuko den. Dirudienez, BFAren asmoa «sei proiektu traktore» bakarrik definitzea da, sei urtera begira (*Deia*, 2024/05/09). Kasu orokor inplizitu hori beteko balitz, eskualdeko eredu sozioekonomikoak eraldaketa oso mugatua izango luke, eta turismora bideratuko litzateke eskualdea behin betiko. Dokumentu honetan, aitzitik, eredu ekonomikoan bertan esku hartuko duen sakonera handiagoko plan baten aldeko apustua egiten dugu.

behar dira, betiere ekosistemari eragiten ez dioten eremuetan. Bigarrenik, UBEren EZKPren egiturazko lehen helburu orokorra (1.3.1 art.) honako hau da: «Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuko administrazio, erakunde eta elkarte guztien partaidetzan, lankidetzan eta kontsentsuan oinarritutako kudeaketa jasangarriko eredu bat sustatzea, gobernantza-eredu bat finkatuz, eta Urdaibaiko administrazio kudeatzaileen eta gizartearen arteko partaidetza eta elkarriketarako espazioak sustatzea». Hau da, ezinbestekoa da kontrastatzea eta adostea.

4. Horrela deritze jarduera berriak eragiteko eta sortzeko gaitasuna duten proiektuei, dituzten ondorio sinergikoak, biderkatzaileak edo bizkortzaileak kontuan hartuta.

1.2. EGIN BEHARREKO LAU URRATS

1. Eskualdeko egoera sozioekonomikoaren **diagnostikoa**.⁵
2. Ardatz nagusi batzuk zehaztea, diagnostiko horretan ageri diren ahuleziei eta indarguneei erantzungo dien **etorkizuneko eskualde-eredua** definitzen joateko.
3. Eredu horri **Busturialderako epe luzerako plan estrategiko** baten bidez erantzungo dioten **estrategia- eta azpiegitura-beharrizanen** hautaketa bat egitea. Eredua leheneratzeko beharrezkoak diren azpiegitura-neurrietako batzuk ezin dira lautik sei urtera bitarteko epean aplikatu. Esku-hartze sakon eta balioaniztun bat behar da, **hamar edo hamabi urterako plan estrategiko bat** (2025-2034 edo 2025-2036), **epe ertainerako** zehaztapen batzuk izango dituen (2025-2029). Ekoizpen-eredua aldatzeko, ekonomia erdigunean jartzeaz gain, ekologia eta gizartearen erdiratuko dituen plan bat behar da.
4. Era berean, bi urterako **talka-plan** baten beharra dago, beharrizan premiazkoenak edo saihetsezinenak leheneratzeko, edo traktzio gehien duten planekin hasteko. Edonola ere, hemen ez dugu landuko talka-plan hori.

1.3. LORTU NAHI DEN GARAPEN EKONOMIKO ETA EKOSOZIALERAKO EREDUA

Eskualderako proposatzen den eredu sozioekonomiko eta ekologikoaren ikuspegia honelakoa da: jasangarria eta bizitza zaintzekoa; konektatua, ekoizle multisektoriala eta konpetentziaduna; berritzailea eta sortzailea; orekatua; ekitatiboa; solidarioa, kultura eta euskalduna.

Jasangarria eta bizitza zaintzekoa

UBE garatzea edozein gogoetaren gainetik dago, ibai-, akuifero- eta estuario-sare saneatua izango luke, nekazaritzaren eta basoaren arteko oreka, eta natura-, kultura- eta paisaia-ondarearen eta natura-ingurunearen arteko harmonia. Hiriguneetako lurzorua, zerbitzuen eta industriaren beharrak eta antolaera zehazteko, UBEko arauak bete behar dira. Jarduera ekonomikoaren eta joan-etorrien karbono-aztarna aztertu behar da, eta negatiboa izan behar da. Klima-aldaketa eta haren ondorio nabariak aintzat hartu behar dira planteamenduan, eta ondorio horietako bat da, epe luzera, eskualdearen uholde-arrisku itzulezina. Arrisku horri aurrea hartzeko eta gerta daitezkeen ondorioak murrizteko neurriak hartu behar dira behar diren. Edateko urarekin lotutako arazoak lehentasuna izango luke; horretarako, akuiferoak garbitu eta hartune berriak egin, eskaintza-

5. Besteak beste, dokumentu hauetako diagnostikoez ari gara: R. Zallo, *El declive económico de Busturialdea-Urdaibai: dilemas y propuestas* (Gernika Gogoratuz, 2021: 223-256); X. Arana, R. de la Asunción eta R. Zallo, *Busturialdea-Urdaibai eskualdeko ikuspegi integrala* (Gernika Gogoratuz, 2021); eta R. Zallo, *Un desarrollo económico y ecosocial para Busturialdea-Urdaibai* (Gernika Gogoratuz, 2024: 35-45).

ren kudeaketa kontserbakorra egin eta kontsumoa murriztu behar dira. Halaber, bizitza zaintzea da lehen mailako osasun-arretaren kalitatea berreskuratzea, produktu jakin batzuetan elikadura-subiranotasunerantz aurrera egitea eta herriak etorkizunerako ikuspegi ekologikoa eta klima-aldaketa aintzat hartuta diseinatzea.

Konektatua

Errepide bidezko sarbide duinak eta funtzionalak behar dira, dau-den bi sarreretatik (Sollube eta Autzagane); Okaren eskuinaldeko barne-mugikortasun publikoa hobetu behar da; trenaren maiztasuna handitu behar da, ezker aldeko eremu batzuetan trenbidea bitan banatuz; errepide bidezko garraio publikoa hobetu behar da —batez ere, Okaren eskuinalde osoko udalerrietan, zaindu gabe baitago—; Bermeoko portua berrantolatu behar da; eta telekomunikazioetan, banda zabaleko estaldura osoa jarri behar da.

Ekoizle multisektoriala eta konpetentziaduna

Eskualdeak sektoreen arteko oreka oinordetzan hartu zuen lehen sektorearen (nekazaritza eta abeltzaintza, basogintza eta arrantza), industriaren, eraikuntzaren eta zerbitzuen artean, baina oreka horrek hondoa jo du. Horixe izan da tradizioa. Zerbitzuetan izan den hazkunde geldiezina —mota batekoa gehiago besteetakoa baino— orekatzeko, nekazaritzan, arrantzan, industrietan eta eraikuntzan aurrerapenak egin beharko lirateke. Hori dela eta, apustua egiten dugu egungo jardueren autogarapenaren alde, bai eta horiek osatzeko ere, industria berrien arloko ekimen traktore jasangarri eta aurreratuekin, besteak beste, honako arlo hauetan: trantsizio berdea, energia berriztagarriak, mugikortasuna, osasuna, elikadura, ingurumena, digitalizazioa, ezagutza, industria sortzailea eta G+b (garapena eta berrikuntza). Horretarako, kanpoko inbertsioen eta ekoizpenaren bidez —izan izaera publikokoak, izan pribatukoak— jarduera berriak ongarritu beharko lirateke. Hau da, dauden indarguneetan (finkatutako enpresetan) oinarritu behar da, baita aukera-sektore berrietan injekzioak egin ere.

Era berean, gaur egungo nekazaritza hornitu beharra dago nekazaritza eta abeltzaintza jasangarri eta lehiakor berriarekin, epe luzerako Landa Plan baten bidez. Horrez gain, baso-eredua berrikusi behar da, zenbait espezie autoktono berreskuratzeke, hala nola artadi kantauriarra, hariztiak eta landazabal atlantikoa, eta baso-jarduera oldarkorrak desagerrarazi behar dira; oso epe luzera begira, zuhaitz aloktonoak ordeztzeko plan bat behar da, eukaliptoaren luzamendu mugagabea mantenduz eta intsinis pinuarentzat (*pinus radiata*) sozialki eta fiskalki errentagarriak diren alternatibak aurkeztuz. Ibai-sarea etengabe zainduz eta berreskuratuz joan behar da.

Berritzailea eta sortzailea

AZTlri bultzada emateaz eta Busturialdean duen zentraltasuna berreskuratzeaz gain, G+b-rako zentro bat behar da, energiaren, elikaduraren eta digitalizazioaren arloetara, besteak beste, enplegu kualifikatua erakartzeko eta proiektu berriak sortu ahal izateko. Enpresa-prestakuntzaren aldeko apustuan, zentraltasuna dute Lanbide Heziketako (LH) ikastetxe berritzaileek, bai egungoek, bai berriek. LHko eskaintzan titulazioen gabeziak daude, eskualdean eskaria badagoen arren eta Eusko Jaurlaritzari eskaera egin zaion arren. Gabezia horrek bokazio batzuk zapuztea dakar, edo nahi ez izanda ere ikasleak batxilergo batera igarotzea, edo egunero beste eskualde batzuetara joan behar izatea. Busturialdeko ikastetxeen arteko koordinazio-falta eta ekimen bateratuen hutsunea ere sumatzen dira (eskolaz kanpoko jardura bateratuak, erreferentziazko pertsonen hitzaldiak...). Unibertsitateek graduondokoak sor ditzakete biodibertsitateari, ingurumenari, trantsizio energetikoari eta bakearen, gatazken eta giza eskubideen azterketari buruz, baita gai horiekin lotutako udako ikastaroak ere.

Orekatua eta kohesionatzailea

Arreta jarri beharra dago egoera ahulenean dauden herrietan, biztanleria espazioan zehar berronertzeko; horrek begirada deszentralizatzea eskatzen du, eta herri guztietan etxebizitzak eta oinarritzko zerbitzuak (oinarritzko denda, kutxazaina, osasun-kontsultategia...) eskuragarri jartzea. Herri bakoitzak bertako jardueren eta zerbitzuen inguruan duen bokazioa zehazteko aukera izan behar du. Adin-piramidea hobetzeko, beharrezkoa da biztanleria gaztea eskualdean geratzea (enpleguaren eta etxebizitzaren bidez), bizi-baldintzak hobetzea, lan-aukera berriak izatea eta alokairuko etxebizitzaren eskaintza zabala —parke publiko baten bidez— izatea. Kirol-azpiegiturak hobetu behar dira, eta haur eta gazteentzako jarduerak sustatu behar dira kirol-mota guztietan, osasuna eta gizartekoitasuna bultzatzeko. Etxebizitza turistikoak ugaritu egin dira, eta jabeek neurrigabeko irabaziak ekarri dizkiete. Etxebizitza turistikoek ugaritze horrek kaltetu egiten du etxebizitzaren alokairuko eskaintza eta bertako biztanleek horiek eskuratzeko duten aukera, bereziki, gazteentzat eta errenta baxuak dituztenentzat. Hori horrela, gero eta gehiago galtzen dira herriaren identitatea eta komunitatearen zentzua, besteak beste, bizilagunen arteko egunero harremanak higatu egiten direlako. Gazteak errotuta daude eta eskualdearekin identifikatzen dira, baina aukerak falta dira; hori dela eta, talentua galtzen ari da, arrakala dagoelako giza baliabideen kantitatearen eta kalitatearen eta sistema ekonomikoak giza baliabide horiek lurraldean finkatzeko duen ahuleziaren artean.

Ekitatiboa

Eskualdean bizi-kalitatea lortzeko, genero-oreka egon behar da enpleguan, ordainsarrietan eta zaintza pertsonalen banaketan. Era

berean, langabezia murriztuko duen enplegu-politikarekin jarraitu behar da, gazteen ekintzailetzan, prestakuntzan eta laneratzeko ekimenetan oinarritzen den plan baten bidez. Funtsezkoa da hezkuntza-eta osasun-sistemak berrikustea, bi kasuetan zerbitzu publikoa bermatuz eta indartuz. Eskualdeko soldata-arrakalaren murrizketa islatzen duten adierazleak behar dira. Migratzaileen kontratu-baldintzetan eta bizi-baldintzetan berdintasuna lortzeko ekimenak sustatu behar dira, kolektibo horiek integratzea eta elkar ezagutzea errazteko. Premiazkoa da erakundeen eta gizarte zibilaren arteko elkarriketa sozialerako mahai egonkor bat sortzea.

Solidarioa, kultura eta euskalduna

Eskualde kualifikatu bat, batez ere, herritarrak dira, bereziki bake-, elkartasun-, anaitasun- eta lankidetzabaliok praktikatzen badituzte, eta Memoria inklusibo bat mantendu eta birsortzen badute. Busturialdeko eskualdearen prestigioari eta erabaki-esparruari balioa eman behar zaio, ahalik eta proiektu bateratu gehien sortuz eta baliabideak partekatuz, dagoeneko Mankomunitatearekin egiten den moduan. Gizarte- eta genero-berdintasuneko tokiko politikak abian jarri eta LGTBI+ kolektiboak erabat errespetatuz islatuko litzateke hori. Eskualdea ez dago gizarte-arazo orokorretatik libre, besteak beste, segregazioa, haurren eta gazteen osasun mentala... eta arazo horiek *ad hoc* erantzunak behar dituzte.

Era berean, Busturialdea euskalduna izatea lortu nahi da, eta euskara presente egotea harreman sozial eta publikoen eremu orotan; hau da, administrazioan, espazio publikoetan, herritarren artean, gizartearen eta enpresetan. Gizarte-erabileran dauden arazoak ikusita, euskara sustatzeko tokiko planak behar dira, hezkuntzako D ereduak bultzatzearekin batera; plan horiek barne hartzen dute ostalaritza eta merkataritza euskalduntzea. Era berean, migratutako pertsonen euskara ikasteko laguntza eman behar zaie. Aldaketa sozialak asimila daitezen, diglosia berronkatzeko plan bat behar da.

Hezkuntzarako sarbide orokorra bermatuta dagoen arren, hainbat arazo konpondu behar dira. Hezkuntza-sistema ez dago egokituta euskal hiztunak ez diren pertsonen bolumen handia jasotzeko. Integrazio- eta komunikazio-falta izateko benetako arriskua dago, eta gaur egun edo etorkizunean segregazioa jasatekoa ere bai, batez ere duela gutxi migratutako haurren kasuan, baina 12 eta 14 urte bitartekoentzat ere bai, hizkuntza dela eta.

Kulturaren eta kultura-jardueren sustapenarekin batera, sorkuntza bera ere bultzatu behar da, bai eta kultura- eta sormen-industrien ehun bat sortu ere (ikus-entzunezkoen eta musikaren ekoizpena, adibidez). Ehun hori hainbat eta hobeto egokituko da, zenbat eta kultura-elkarte eta -jarduera publiko gehiago azaleratu, bizi-kalitatea hobetu eta kultura-tradizioari erreparatu.

1.4. ERRONKA ESTRATEGIKOAK

Erronka estrategikoak zenbait eremutakoak dira:

- Lurralde jasangarria eta ingurumen osasungarria.
- Uholde-arrisku handiko lurraldea.
- Sarbiderako eta mugikortasunerako azpiegituretan historikoki egon den defizita ezabatzea.
- Indarrean dauden industria-sektoreak sendotzea.
- Aukera-sektoreak, industria-lehentasuneko sektoreak eta ezagutza-sektoreak erakartzea.
- Kalitatezko enplegua.
- Ongizate soziala eta ongi banatua.
- Kultura, hezkuntza eta identitatea.
- Eta, giltzarri gisa, gobernantza parte-hartzailea, aktibo dauden erakundeen gizarte-ehunak, indarreko erakundeek⁶ eta eskualdeko Garapen Agentzia berri eta agintari batek osatua.

1.5. EPE LUZERAKO (4 URTE) ETA ERTAINERAKO NEURRIAK (10-12 URTE BITARTEAN)

Proposatutako neurri asko dagoeneko hitzeman (eta bete gabe utzi) ziren aurreko plan instituzionaletan, eta tokian tokiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorretan (HAPO) ere aipatu ziren.

Hemen, epe ertain eta luzekoak bakarrik izendatu dira, eta horiek gauzatzeko gutxi gorabehera beharko litzatekeen epea adierazi da. Kasu askotan, albo batera utzi dira herri-mailakoak soilik diren neurriak (kirol-instalazioak, liburutegiak, aparkalekuak...).

Ardatz hauen inguruan antolatuta daude: jasangarritasuna; Garapen ekonomikoa eta berrikuntza; Enplegua eta prestakuntza; Gizarte-ongizate ekitatiboa; eta Kultura, hezkuntza eta identitatea.

Jasangarritasuna

- Azpiegituretan esku hartzea: Autzagane-Muxika, Sollube (4-10 urte, azpiegituren arabera).

6. Urdaibaiko Patronatuari eta UBEko Lankidetzaren Kontseiluari funtzio berriak esleitu beharko litzaizkieke, ekarpenak egiten aritu baitira beti, urteetan zehar.

- Trenbide-sistema bitan banatzea eta intermodalitatea egitea errepide bidezko garraio publikoarekin, nasak hobetzea eta trenbide-pasagune batzuk kentzea (4-10 urte).
- Bermeoko portua hainbat erabileratarako hobetzea, eremu zabal bat libratzeari esker (4-10 urte).
- Muruetako eta Bermeoko ontzioletako lurzoruak libratzea eta garbitzea, eta La Vega-Ibarrako, Daliako eta kaltetutako akuiferoako kutsatutako lurzoruak berreskuratzea (2-4 urte).
- Padurak berreskuratzea (Forua, Murueta, Busturia, Kortezubi, Arteaga eta Ibarrangelu) (4 urte).
- Okaren Arroa Ekologikoki Leheneratzeko Plan bat, Mundakako itsasadarreko kanala egokitzea eta itsasadarren ebakia garbitu eta edertzea (Gernika-Lumo, Forua, Murueta) barne hartuko dituen (4 urte).
- Zenbait udalerritako Uholde-arriskua minimizatzeko Urgentziazko Plana (4-10 urte).
- Gernikako Errenteria eta Dalia zubiak zubi obalatuaz ordezkatzeko, *urtegi-efektua* saihesteko, eta ekaitz-tanga bat jartzeko (4 urte).
- Arketako eta Portuondoko ur-geruzak libre uzteko konponbideak ematea (4 urte).
- Baliabide Naturalak Ordenatzeko Plana, espezie aloktonoak —eukaliptoak eta intsini pinua (*pinus radiata*)— espezie autoktonoekin ordezkatzeko, eta baso publikoak eta herri-basoak arko paisaia eta hidrologia lehengoratu hedatzeko. Luzamendu mugagabea eukaliptoarentzat (4-10 urte).
- Akuiferoak saneatzea, hartune berriak egitea, ura aurrezteko eta aprobetxatzea, autosufizientziarantz bidean (4 urte).
- Muxika-Ajangizko kolektorea amaitzea eta herrietako eta auzoetarako saneamendu-konponbideak ematea, batez ere Okaren eskuinaldean (4 urte).
- Errepideen ondoan eta antolamendutik kanpo erortzearen dauden eraikinak berrikustea, gerora eraisteko (4-10 urte).
- Energia-kontsumoaren eta karbono-aztarnaren indizeen jarraipen-sistema bat, horiek etengabe murrizten joateko; energia aurrezteko, sortzeko eta eraginkortasunez erabiltzeko eskualdeko estrategia eta plan batean oinarrituko litzateke hori (2-4 urte).

Garapen ekonomikoa eta berrikuntza

- Garapen-agentzia integral eta indartsu bat, erabakitzeke ahalmena izango duena, eta Ekimenak, Behargintza eta Urremendi bateratuz sortua; dagoeneko martxan dauden ereduei jarraituko lieke (Sakana Garapen Agentzia...). Aldagai ekonomiko eta ekosozial garrantzitsuen jarraipena egiteko behatoki bat izango luke (2 urte).
- ETEentzako berrikuntza-zerbitzuen programa bat, eskualdea RIS3 Euskadi estrategiarekin lerrokatzeke, sektore tradizionaletan: zura, kontserba-industria, arrantza, automobilgintza... (2-4 urte).
- Zuraren, kontserben eta plastikoen klusterren proiektu estrategikoei babes, industria laguntzaileak barne hartuta (4 urte).
- I+G+b (ikerketa, garapena eta berrikuntza) arloko zeharkako proiektu traktore kolaboratiboak diseinatzeko programan parte hartzea, Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planaren zeharkako ekimen traktoreen esparruan (4 urte).
- Inbertitzaileen kapitalak eta/edo enpresa traktoreak erakartzea, erakundeek horiek eskualdera bideratuz, eta ingurumenari, energiari, elikadurari, osasunari, digitalizazioari, fabrikazio aurreratuari edo material berriei lotutako sektoreetara (4-10 urte).
- Zientzia eta teknologiako enpresak eta eragileak erakartzea, eta aurrez aipatutako esparruren bateko zentro teknologiko bat ere bai, Muxikako industrialdean jartzeko (4-10 urte).
- AZTIren ikertzaile-rola indartzea, eskualdeko enprekin eta elikagaien esparruarekin lotuta (2-4 urte).
- Bermeo atunaren munduko hiriburua: posizionatzeko jarduerak (2-4 urte).
- Balio erantsi berriak Bermeoko kontserba-industrian: ultraizoztuak, MSC ziurtagiria duen arraina, hegialburra...; eta elikadurarekin lotura: pateak... (4 urte).
- Muxikako eskualdeko Industria Parkea urbanizatzen hastea (2-4 urte).
- Inama fabrika zaharreko espazioa abian jartzea (2-4 urte).
- Industria-lurzorua prestatzea Bermeon eta Gernika-Lumon (2-4 urte).
- Ekoizpen ekologikoko nekazaritzako eta abeltzaintzako kooperatiba berriak sustatzea, bai eta landa-plan bat ere, 2030erako ekoizpen agroekologikorako lurak % 20raino handitzeke (0 kilometroko kontsumoa) eta lanbidea gartzetzeko (4 urte).

- Labore jasangarrietara edo abeltzaintzara bideratutako lurak eskuratzeko proiektuei laguntzak ematea, eta tokiko lurak agroabeltzaintzako ekoizpenerako erreserbatzea (2-4 urte).
- Kontserbak, zukuak eta abar eraldatzeko eta ekoizteko enpresak sustatzea, kalitatezko eta hurbileko nekazaritza-ekoizpenaren balio erantsia eta lehiakortasuna handitzeko (4 urte).
- Nekazaritza eta industrian Urdaibai markarekin etiketatzea, produktu jasangarriak eta etorkizunean batera merkaturatzeko aukerak homologatzeko (4 urte).
- Baxurako arrantza-flotan geratzen dena mantentzeko babesa (2-4 urte).
- Etorkizunean kontserba-fabrika batzuk bateratzea (2-4 urte).
- Etxebizitza Turistikoekin lotuta ez dauden jardura ekonomikoak sustatzea Bermeoko Alde Zaharrean (2-4 urte).
- Akuikulturako esperientziak lantzean-lantzean aztertzea (4-10 urte).
- Epe luzearako arrazoizko turismo-plana (4 urte).
- Energia berriztagarriak erabiltzea Busturialdeko eraikin eta ekipamendu publikoetan, eta energia-komunitateak sustatzea (4 urte).

Enplegua eta prestakuntza

- Zuraren, kontserben eta plastikoen enpresen industria laguntzaileak ezartzeko laguntza (4-10 urte).
- Barrutiako eta Bermeoko LH zentroetan ikasketa-planak zabaltzea: ingurumen-kudeaketara bideratuta; sail bat sortzea nekazaritza eta abeltzaintza ekologikorako eta beste alor batzuetarako (ekodiseinua, ikus-entzunezkoak, nekazaritza-produktuen eraldaketa, turismoa...) edo alor transbertsaletarako (idazkaritza, enpresa-kudeaketa...); horrez gain, oinarritzko heziketa-zikloak —eskaera handia dute— eskaintzea, eskualdean bertan ikasteko (2-4 urte).
- Prestakuntza handirik ez duten pertsonak gaitzea (45 urtetik gorakoak) (2-4 urte).
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiaekin (IKT), biodibertsitatearekin eta 4.0ekin lotutako profilak prestatzea (2-4 urte).

- Prestakuntza-zentroen eta enpresa nagusien arteko sinergia sustatzea, eta unibertsitateko prestakuntza duala bultzatzea eskualdeko enpresa eta zentro aurreratuetan (AZTI, Maier, Enagás, Egoi...) (2-4 urte).
- Zientziarako, teknologiarako eta matematikarako bokazioa sustatzea ikastetxeetan, eta giza eta gizarte-zientziak oso ondo zaintzea (4 urte).
- IKTetako eta 4.0 industriako gaikuntzaren jarraipen pertsonalizatua egitea (4 urte).
- Bazterketa-arriskuan dauden gazteen gaikuntzaren jarraipena egitea (2-4 urte).
- U-BAlko enpresa emergenteen mintegirako finantzaketa eta bitartekoak handitzea. Arlo horrek, gainera, ekintzailatzaren kultura piztuko duten ekimenak susta ditzake (4 urte).
- *Coworkingerako* eskaintzaren beharra, ikerketa-egonaldietarako eta telelanerako (2-4 urte).
- Busturialdeko Zerbitzuen Mankomunitateak etxeko lanetarako kontratuen formatu estandarrak errazteko zerbitzua martxan jar dezake, bai eta aldi baterako lanetarako ere, gazteek ostalaritzan egiten dituzten aldi baterako lanak erregularizatzeko (2 urte).
- Saltegi txikien kudeaketa eta merkaturatzea hobetzeko eta horiei aholkularitza emateko programa (4 urte).
- Azalera handiko saltoki berriak kokatzeko luzamendua, saltegi txikiei prestigioa ematea, tokiko merkatuak babestea eta elektroniko-merkataritzari (*online*) sustagarriak kentzea (4 urte).
- Ostatu-azpiegiturak jartzea, nekazaritza-turismotik harago, eta harrera-gaitasunaren sarea handitzea (agroturismoak, aterpetxeak eta landa-hotelak), bai eta bilera- eta biltzar-turismoaren gaitasuna ere (4-10 urte).

Gizarte-ongizate ekitatiboa

- Emakumeak industria-, teknologia- eta nekazaritza-arloetan sartzeko hornidura berezia egitea, zuzendaritzako eta enpresa-ekintzailatzako lanpostuetan sartzeko ere kontuan hartuta (2-4 urte).
- Emakumeak ahalduztzeko eta gizarte osoa berdintasunean hezteko programa; eta enplegu-berdintasuna, errenta, indarkeria matxista, zaintzen banaketa eta erabaki-eremuen bilakaera aztertuko dituen bi urtez behingo txostena (2-4 urte).

- Gazteentzako alokairurako etxebizitza-planarekin hastea (Gernika, Bermeo, Mundaka, Forua...) (4-10 urte).
- Etxebizitza turistikoen lizentzia berriak emateko luzamendua; legez kanpokoak direnak detektatzeko eta baldintzak betetzen direla egiaztatzeko ikuskapen-zerbitzua; eta turismoari buruzko Eusko Jaurlaritzaren Dekretuaren berrikuspena, etxebizitza turistikoen mugak adieraziko dituen, tokian tokiko alokairuko etxebizitzaren parkearen eta biztanleriaren tamainaren arabera (2 urte).
- Alokabideren programa berezia, migratzaileek etxebizitza alokatzeko kontratuak lortzean jasaten duten diskriminazioari aurre egiteko (4 urte).
- Foru-araudietan aldaketak egitea, «baserriak banantzea sustatzeko, txikiagoak eta bizigarriagoak izan daitezen» eta «tamaina handiko baserriak birgaitu ahal izateko eta erabilerarik gabe ez geratzeko», betiere ondarea babestuko duen eredu bati jarraituz, lurretan egin den bezala (4 urte).
- Bermeoko Alde Zaharra birgaitzen amaitzea eta auzotarrak bertara itzultzea errazteko neurriak hartzea (4 urte).
- Gernikako plaza birmoldatzeari ekitea, merkatu egokituko eta komunikazio sozialerako espazio erabilgarria izan dadin, erabilera anitzekoa, eta ondare immaterialtzat hartua (2-4 urte).
- Busturialdekoa izatearen sentimendu kolektiboa sustatzea, elkarren ezagutza, ekimen bateratuetan eta trataera ekitatiboan oinarrituta (2-4 urte).
- Kolektibo migratzaileen elkar-ezagutza eta integrazioa sustatzeko ekimenak (2-4 urte).
- Adinekoentzako egoitza publikoak eta kalitatezkoak zabaltzea, hurbileko arreta ziurtatzea, norbere etxean jarraitzeko mekanismoak sustatzea eta Koobizitza etxebizitza kolaboratiboak (*cohousing*) sustatzea (4-10 urte).
- Etxez etxeko arreta- eta zaintza-zerbitzua publikatzea, nahiz eta zerbitzu zehatzak azpikontratatu, etxeko lanen kontratuak erregularizatzearen bidez (4 urte).
- Bidegorrien sare integratu baterako eskualdeko akordioa (2-4 urte).
- Auzo-bideak lehengoratzeko (2-4 urte).
- Gaixotasunak eta morbiditatea aztertzea, *ad hoc* osasun-neurriak hartzeko (4 urte).

Kultura, hezkuntza eta identitatea

- Herri bakoitzean eskualdeko ikastetxeen arteko koordinazioa eta ekimen bateratuak sustatzea: eskolaz kanpoko jardura bateratuak, erreferentziazko pertsonen hitzaldiak... (2 urte).
- Eskualdeko hezkuntza-sistema sakonki aztertzea, Busturialdeko Udal guztiek sustatutako azterketa baten bidez; era horretan, haurren eta nerabeen benetako beharretara egokitutako hezkuntza-sistemaren prestazioak hobetzeko gabezien eta arazoen mapa marraztea lortuko da (2-4 urte).
- Murgiltze-sistema sendoa eta denbora baterakoa ezartzea, eta ez soilik hezkuntza-sistemara iritsi berri diren haur eta nerabeentzako errefortzu-sistemak (2 urte).
- Tokiko sektore publikoan hizkuntza-normalizazioa bultzatzea, administrazio-instantzia guztietan herritarrei arreta euskaraz emango zaiela ziurtatzea, eta udal zerbitzuetan, eta, oro har, zerbitzu publikoetan euskara izatea lanerako ohiko barne-hizkuntza (4 urte).
- Ekintzetan eta komunikazioan euskara sustatzeko eskualde-mailako planifikazioa egitea, merkataritzan eta ostalaritzan arreta berezia jarritz, eta esparru horietako langileentzako oinarrizko ezagutzarako baliabideak eskaintzea (2-4 urte).
- Urdaibaiko Kultura Ondarearen Inbentarioa egitea (2-4 urte).
- Gernika-Lumon Memoriaren Museoa eta Bermeon Gaztelugatxeko Donianeko interpretazio-museoa sortzea (2-4 urte).
- Eskualdeko herrietan euskarazko kultura-sorkuntzaren hedapena sustatzea eta partekatzea (2-4 urte).
- Kultura tradizionalaren euskarazko erakustaldien hedapena sustatzea herri desberdinetan, goiburuetan eskainitako zabalkunde-jarduerak partekatuz (2-4 urte).
- Busturialdea kultura- eta sormen-industrien kokaleku gisa sustatzea (4 urte).
- Kultura-sorkuntza eta -ekoizpena bultzatzea, eskualdean kokatzeko moduko kultura- eta sormen-industria berrien bidez (4-10 urte).
- Akordioa egitea UPV/EHUrekin, graduondokoak eta udako ikastaroak instituzionalizatzeko (4 urte).

1.6. PROIEKTU TRAKTOREEN LAU ESPARRU

Zergatik sei proiektu traktore⁷, eta ez hogeï edo hogeita hamar, eta inpaktu txikiagoko beste batzuk, hemengo beharrianak beste eskualde batzuetan baino dezente gehiago badira?

Busturialderako aipatutako ekintzetatik, gutxienez, hogeita zazpi proiektu traktoretzat har daitezke, nahiz eta pisu eta kostu aldetik desberdintasunak izan. Horietako batzuk dagoeneko jasota daude plan instituzional orokorretan —Bizkaia Denontzat, Euskal Trenbide Sarea (ETS)...

Lau esparru traktoretan bana daitezke: Azpiegiturak, Ekologia, Eredu ekonomikoa eta Ekintza soziokulturala.

A. Azpiegiturak

- Bermeoko portua eraberritzea, hainbat erabilera izan ditzan (4-10 urte).
- Autzaganetik Muxikarako errepidea (4-10 urte).
- Sollubetik Bermeorako eta bertako porturako sarbidea (4 urte).
- Muxikako industrialdearen urbanizazioa (2-4 urte).
- Trenbidea: bitan banatzea eta intermodalitatea (4 urte).
- Bermeon eta Gernika-Lumon industria-lurzorua egokitzea (4 urte).
- Busturialdeko Uholde-arriskua minimizatzeko Urgentziazko Plana (2-4 urte).

B. Ekologia

- Oka ibaiaren arroaren Leheneratze Ekologikorako Plana, espezie aloktonoak (eukalipto eta intsini pinua) espezie autoktonoekin ordezkatzeko Baliabide Naturalak Antolatze Plana barne hartzen duena (10 urte).
- Ibai-sarea lehengoratzeko eta gotortzeko, arroak eta hartunek babesteko, nahasmendu hidrologikoak lehengoratzeko (10 urte).
- Padurak lehengoratzeko eta landare inbaditzaileak kentzeko (4 urte).
- Oka ibaiaren eskuinaldeko herrien eta auzoen saneamendua konpontzeko (4 urte).

7. Ezkerraldea-Meatzaldea eskualdeko planean traktoretzat hartu diren sei proiektuek, eskualdea hobetu badute ere, ez dituzte beren helburuak bete, eta ez dute eskualdearen industria-tradizioa berrezarri. Ezkerraldea-Meatzaldea eskualdeko Plan Estrategikoak —haren eskema jarrai litekeela dirudi— honako hauek identifikatu zituen: parke teknologikoa, osasungintza, lurzoru kutsatuak berreskuratzea, esku-hartzeak auzo zaurgarrietan, jarduketak C2 linean (Bilbo-Muskiz), eta industria-ondarearen balioa handitzea.

- Berotegi-efektuko gasen isuriari, energiari eta aztarna ekologikoari buruzko jarraipen-indizeen aldizkako txostenak egitea (2-4 urte).

C. Eredu ekonomikoa eta enplegu-eredua industrian, nekazaritzan eta zerbitzuetan

- Garapen-agentzia integral bat sortzea, erabakitzeko ahalmena izango duena, eta Ekimenak, Behargintza eta Urremendi bateratuz sortua; aldagai ekonomiko eta ekosozial garrantzitsuen jarraipena egiteko behatoki bat izango luke (2 urte).
- Teknologia- eta/edo ikerketa-zentro bat jartzea, sinergia berritzaileak izango dituen ingurumenaren, energiaren, bioekonomiaren edota material berrien arloetan (4-10 urte).
- Ekonomia berdearekin/trantsizio ekologikoarekin edo 4.0ekin lotutako enpresa-lerro bat irekitzea, erakundeen laguntzarekin eskualdean kokatuko den talde garrantzitsuren bat buru izanik (4-10 urte).
- Dagoeneko badauden kluster sektorialak eta haien industria laguntzaileak sendotzea, erakundeen laguntzarekin eta I+G+b arloko zeharkako proiektu traktore kolaboratiboak diseinatzeko programan parte hartuz, Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planaren (ZTBP 2030) zeharkako ekimen traktoreen esparruan (4 urte).
- Barrutiako eta Bermeoko LH zentroetan ikasketa-planak zabaltzea, ingurumen-kudeaketara, biodibertsitatara, IKTetara eta 4.0ra bideratuta, eta sail bat sortzea nekazaritza eta abeltzaintza ekologikorako eta 4.0 motakorako (2-4 urte).
- Prestakuntza handirik ez duten pertsonak gaitzea (45 urtetik gorakoak) (2-4 urte).
- Azalera handiko saltoki berriak kokatzeko luzamendua, tokiko saltegi txikiei prestigioa ematea, tokiko merkatuak babestea eta online-merkataritzari sustagarriak kentzea (4 urte).
- Epe luzerako turismo-plana (4 urte).
- Ekoizpen ekologikoko nekazaritzako eta abeltzaintzako kooperatiba berriak sustatzea, bai eta 2030ean ekoizpen agroekologikorako lurak % 20raino handitzeko landa-plan bat ere, lehentasuna emanez eskala txikiko eta 0 kilometroko kontsumorako ustiatzei eta lanbidea gaztetzeari (4 urte).

D. Ekintza soziokulturala

- Emakumeak ahalduntzeko programa, eta gizonen eta emakumeen arteko enplegu-berdintasunaren, errentaren, indarkeria

matxistaren, zaintzen banaketaren eta erabaki-eremuen bilakaera aztertuko dituen bi urtez behingo txostena (2-4 urte).

- Eskualdeko gazteentzako alokairuko etxebizitza sozialen plana Busturialde osorako eta hainbat udalerritan (4-10 urte); eta, hori baino lehen, honako hauek: etxebizitza turistikoei lizentzia berriak emateko luzamendua, legez kanpokoak direnak detektatzeko eta baldintzak betetzen direla egiaztatzeko ikuskapen-zerbitzua eta Eusko Jaurlaritzaren turismoari buruzko dekretuaren berrikuspena, etxebizitza turistikoak mugatzeko (2 urte).
- Ekintzetan, komunikazioan eta merkataritzako eta ostalaritzako arretan euskara sustatzeko eskualde-mailako planifikazioa egitea, eta esparru horietako langileei euskararen oinarritzko ezagutzarako baliabideak eskaintzea (2-4 urte).
- Eskualdeko herrietan euskarazko kultura-sorkuntzaren hedapena sustatzea, eta hedapen hori partekatzea (2-4 urte).
- Kolektibo migratzaileen elkar-ezagutza eta integrazioa sustatzeko ekimenak (2-4 urte).
- Adinekoentzako egoitza publikoak eta kalitatezkoak, eta adinekoen etxeetako irtenbideak (4 urte).

Ziur aski, pakete oso horrek Busturialdeko ekosistema, ekonomia eta ongizatea eraldatuko lituzke.

7. AZKEN OHARRA

Espero dezagun eztabaidak, zifrak eta konpromisoak kontuan hartuz osatuko den Plan estrategiko ofizialak hemen proposatu dugunaren antza izatea, edo, gutxienez, gizarte zibilaren dokumentu honek eredu-aldaketa baten helburuak erdigunean jartzen eta goratzen lagundu izatea. Horretarako, eragileek instantzia guztietan baliatu behar dute.

Hemen hamar eta hamabi urte bitarteko epea aipatzen den arren, kostuak urteka banatu behar dira, eta, horretan, garrantzitsuen joera da: argi izatea zer eredu-aldaketarantz jo nahi den. Ez da kostuen eta finantzaketaren zifrarik adierazi; izan ere, horretarako aholkulari-talde bat behar da. Ekintzak banan-banan nola gauzatu diren ere ez da zehaztu. Hori ez litzateke zaila izango, baina plan instituzionalean sartzen diren ala ez jakin behar da, noski. Neurri garestienak duela urte batzuetatik egiteke eta hitzemandak batez lotuta dauden azpiegiturak dira. Bizkaiko azpiegituren beste inbertsio batzuk egiteko badago finantzaketa: aukera-kontua da.⁸ GGU proiektua egitea edo ez egitea ere aukera bat da; izan ere, proiektu horrek, gutxienez, 100 milioi kenduko lituzke euskal aurrekontu publikoetatik, eta diru hori ezingo litzateke beste helburu batzuetara bideratu.

8. Hamarkadarako Errepideen hirugarren Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) zirriborro berria (*El Correo*, 2024/08/11), beste azpiegitura eta ekimen berri batzuei eman zaie lehentasuna berriro, 2.900 milioiko inbertsioarekin: Bilboko ekialdeko saihesbidea, Getxo-Kukularra eta Bolue-UPV/EHUko saihesbideak, Malmasingo bypassa, Santo Domingoko tunela, Lamiakoko ibai azpiko tunela, hirugarren erreia Kantabriarako sarbideetan...

Plan honen eta herriaren fiskalitatea berrikustea ere beste aukera bat da, jakinda hemen aipatzen diren inbertsioek, epe luzera, balio erantsi handiagoa eta diru-bilketarako gaitasun handiagoa izango dutela. Edonola ere, desberdintasun soziala leuntzea ez da aukera bat: ez du preziorik.

Dokumentu hau «Busturialdeko etorkizuna: elkarrizketa estrategikoak» foroan, 2024ko azaroak 18 eta 19an, aurkeztu zen. Gernika Gogoratuzek antolatu zuen, gizarte zibilaren topaleku, eztabaida eta erabakigune gisa, eta «Plan Ekonomiko eta Ekosoziala» izendakoaren ardatz nagusien lanketa gisa. Dokumentua hilabete batzuk lehenago aurkeztu zen, eta aurretik sei foro sektorialetan eztabaidatu zen. «Hamabi ideia nagusi Busturialdea-Urdaibaiko plangintza ekonomiko eta ekosozial integral baterako» dokumentuan ezarritako irizpideei ere jarraitzen die, bai eta «Busturialdea-Urdaibaiko Karta Ekologikoari» izendakoaren zirriborroko helburuei eta planei eta «Busturialdea-Urdaibain etorkizunean parte hartzeko proposamenak» zirriborroko gobernantzari ere. Hiru dokumentu horiek aurkeztu eta eztabaidatu ziren aipatu topaketan.

Plan estrategiko hau laburbiltzen duen leloa hauxe litzateke:

«Busturialdea: babestu Urdaibai, ondo bizi eta lan».

Gernika Gogoratuz, 2024ko azaroaren 18ko eta 19ko
eztabaidaren ondoren.

02

HAMABI IDEIA NAGUSI

BUSTURIALDEA-
URDAIBAICO
PLANGINTZA
EKONOMIKO
ETA EKOSOZIAL
INTEGRAL BATERAKO

1. Hasteko, diagnostiko sakon bat behar da. Eskualdearen gain-behera ekonomikoa —historia ekonomikoaren azken hamarkadak— eta gainbehera hori eragin duten arrazoiak aztertu behar dira; batez ere, erakundeen utzikeria, hain beherakada luzea ez zuzentzeagatik. Azterketa horretatik abiatuta definitu behar dira eskualdearen **egungo beharrak**, plano guztietan.

2. Gaur egungo defizit eta gainbehera handiek adierazten dute **zor historiko** bat dagoela eskualdearekiko. Sarbideko eta portuetako inbertsio eta azpiegitura publiko ugari falta dira, eta inbertsio pribatuak ez dira behar den lekura bideratu. Gabezia horien erruz, biztanleko barne produktu gordinari (pc BPGd) dagokionez, Busturialdea azken aurreko postuan dago Bizkaiko eskualdeen artean. Datu horrek adierazten du «sakrifizio ekonomikoko eremua» izan dela. Urdaibaiko Biosfera Erreserba izendatzeak (1984) eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren legeak (1989) horretara behartzen zutela erabili izan da aitzakiatzat, baina hori ez da egia, ezta bidezkoa ere. Urdaibaiko Erreserbako Nukleo-eremuetatik kanpo, ekimen ekonomikoak aintzat hartu izan dira beti.

3. Garapen integral batek, ekonomikoa ez ezik, **ekologikoa** izan behar du, hau da, natura eta ingurumena hartu behar ditu abiapuntutzat eta lehentasuntzat, eta are gehiago legearen babespean badaude. Era berean, ondasun komunak eta publikoak babestu behar ditu, eta ez ditu utzi behar merkatuaren mende (turismoaren mende adibidez), desnaturalizatu ez daitezen. Horregatik, Guggenheim Urdaibai proiektuari buruz dakigunak ez ditu, gaur egun, baldintza horiek betetzen, ez behintzat Muruetako Ontziolaren balizko egoitzaren kokapenak eta sartzeko proposamenak. Karta Ekologiko bat betetzeko, Oka ibaiaren arroaren Leheneratze Ekologikorako Plan bat behar da. Plan horrek barne hartu behar ditu espezie aloktonoak (eukalipto eta intsini pinua) espezie autoktonoekin ordezkatzeko joateko Natura Baliabideak Antolatze Plan bat (NBAP); Uholde-arriskua Minimizatze Urgentziazko Plan bat; eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako (ur) Horniduraren Lurralde Ekintzako Plan bat. Era berean Urdaibaiko Saneamenduko Lurralde Ekintzako Plana behin betiko bultzatu behar du.

4. Eskualdeko biztanleria osoaren **giza garapena** ezinbesteko osagarria da ekuazio ekosozialean; batik bat, arreta gutxien jaso duten gizataldeen garapena. Alokairu eskuragarriko etxebizitzaren parke publiko bat da lehentasuna, pertsonak eskualdean bizitzeko jarrai dezaten. Horrez gain, etxebizitza turistikoaren moratoria bat behar da, eta halako etxebizitzak pixkanaka desagertzen joatea. Egoera txarrean dauden udalerrietan jarri behar da arreta, eta oinarritzko zerbitzuak haien eskura

ipini. Beharrezkoa da generoen arteko aldea orekatzeko plan sozial bat, enpleguan, ordainsarietan eta zaintza pertsonalen banaketan dauden desberdintasunak murrizteko. Era berean, ezinbestekoak dira langabeziaren aurkako politika bat; hezkuntza- eta osasun-sistema berrikustea, bi zerbitzu publiko horiek indartuz; eta migratzaileen kontratu- eta bizi-baldintzetan ekitatea lortzeko aurrerapausoak. Eraikuntza sozial horren barruan sartuta dago Busturialdearen euskalduntzea: alor administratiboan, publikoan, sozialean eta enpresarialean. Horri dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatutako tokiko planak behar dira euskara sustatzeko eta ostalaritza eta merkataritza euskalduntzeko.

5. Ez dago balio partekaturik gabeko gizarterik, baina erakundeek joera dute gizartean homologatutako kontzeptu positiboak, hala nola jasagarritasuna, gardentasuna, parte-hartzea eta abar, oso bestelako ekintzetan eta are ekintza kontraesankorretan baliatzeko. Plan honetan modu eredugarrian erabili behar dira beti, **kategoriak eta proposatzen diren neurriak bat etor** daitezen. Bestela, kategoriaz legiztatzailea ezabatuko da alferreko hipokresiak saihesteko, edota hura baliogabetzen duen ekintza baztertuko da.

6. Planak biztanleria osoari egin behar dio mesede, eta eskualdeko gizarte osoa du hartzaile, osotasun gisa. Dena den, sektore sozial hegemoniko bakar batek bereganatu ez dezan, **belaunaldien arteko** —gazteenetatik hasi eta nagusienetara—, **generoen arteko** —genero femeninoa bideratua, desabantailan baitago, baina baita genero maskulinora ere—, **kulturen arteko** —inor ez da baztertu behar— eta **klaseen arteko** —arreta berezia jarriko zaie errenta txikieneko pertsonen, jatorria edozein dela ere— logika bat ere izan behar du.

7. **Anbizio handiko eta epe luzeko plan** bat behar da. Plan horrek, antzemandako beharrei erantzuteaz gain, hemendik aurrera epe laburrera (2-4 urte), epe ertainera (4 urte) eta epe luzera (4-15 urte) zer egingo den egituratu behar du. Inbertsio publikoetarako eta gas-tu-konpromisoetarako zuzkidura bat izan behar du planak, erronkaren neurrikoa, baina plana neurtzeko irizpide nagusia ez da izango beste Lehenetsunezko Jarduketa Eremuetako jarduketekin alderatzea.

8. **Trakzio-proiektuak** ez dira, administrazio-arrazoiengatik, item gutxi batzuetara mugatu behar. Logikoena da halako proiektu guztiei arreta ematea, behar eta ahal diren epeetan. Alor guztietan bete behar da hori: ekonomikoan, sektoreen artekoan, sozialean eta ekologikoan.

9. Eskualdea turismora bideratu izan da azken urteotan, baina funtsezkoa da **sektoreen arteko oreka** berreskuratzea; izan ere, xx. mendearen hein handi batean orekatuta baitzeuden nekazaritza, abeltzaintza, arrantza, industria eta zerbitzuak. Lehentasunezko jarduketek industria berrian —deskarbonizatua eta berritzailea— zentratu behar dute, baita lehen sektore prestigiotsu batean ere. Lehentasunezko jarduketak behar dira arrantzan eta arrantzatik datozen elikadura-produktuetan, eta nekazaritza eraginkor eta hurbila eta baso jasangarriak sustatu behar dira. Horretarako, ezinbestekoak dira lurzorua, kokalekuak eta programak. Horrez gain, eskualdeko Lehen Mailako Ekoizpena Sustatzeko Plan espezifiko bat behar da, 1998ko Urdaibaiko Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapenerako eta Garapenerako Egitarauak (JSEGE) jasotzen zuen —eta indarrean jarraitzen duen— bezala.

10. Busturialdeak potentzialtasun handiak ditu. Giza baliabide oso kualifikatuak ditu, gaur egun eskualdetik kanpo aritzen direnak. Egoera irauli behar dela uste dute eskualdeko biztanleek. Etorkizunari begira, **Busturialdea aukera ekonomiko** gisa ikusi behar da. Busturialdeak laborategi handi bat izan behar du, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Nukleo ez diren eremuetan ekonomia deskarbonizatua eta neutraltasun energetikoa garapen ekosozialarekin eta berrikuntzarekin uztartzeko. Hori da apustu nagusia. Lurraldeko jarduerari eutsi dioten eta indarrean dauden industriari eta eraikuntzatik abiatuta ere, argi dago bi sektore horiek ez direla nahikoak gaur egungo eta etorkizuneko garapenerako. **Sektore berriei** ekin behar zaie ekimen publikotik. Ekimen pribatuak ere sustatu behar dira, eta, horretarako, lurraldearen irisgarritasun- eta kalitate-baldintzak hobetu behar dira, eta ekimen horiek gune teknologikoren batean bildu.

11. Eragile publikoek, pribatuek eta komunitarioek ahaleginak batu behar ditugu nortasun kolektibo bat berreraikitzeke, eta **Busturialdea** sozialki eta ekologikoki justuagoa izango den eredu ekonomiko bat bultzatzeko **aukera ekosozial** gisa ulertzeko. Ezin gara erori erakundeen utzikerian, ezta ezkortasunean edo aldarrikapen hutsean ere. Gure lurraldean ahalmen eta gaitasun asko ditugu eskualde hobeago eta bizigarriago baten alde lan egiten eta borrokatzen jarraitzeko. Desberdintasuna eta pobrezia murrizteko eta bizitza hobetzeko gai gara. Lankidetza publiko-pribatuetatik haratago, lankidetza publiko-komunitarioak bultzatu behar ditugu.

12. **Gobernantza demokratikoa eta parte-hartzailea** eskatzen dute biztanleek, bai plan instituzionala egiteko, bai haren jarraipena egiteko, Patronatuaren Erreformaren eta Lankidetza Kontseiluaren bidez. Hori gartzeko, Busturialdeko garapen-agentzia integral bat egituratu behar da,

egungo agentzien bateratzean oinarrituta. Udalerrien eta eskualdeen arteko batzorde bat ere behar da, alderdien arteko desberdintasunak gainditu daitezzen. Gizarte zibilari dagokionez, beharrezkoa da urteroko eskualdeko gizarte foro bat. Erakunde horretan eztabaidatuko lirateke eskualdearen erronkak eta proposamenak. Era berean, eragile sozialen arteko topaguneak bultzatu behar dira, berrikuntza eta eraldaketa sozialeko ekimenak hartzeko. Nolanahi ere, ezinbestekoa da planaren jarraipenerako erakunde neutral bat. Erakunde horrek lau hilean behin edo sei hilean behin bildu behar luke, eta konprometitutako epeak, inbertsioak eta gauzatze-mailak aztertu behar lituzke, baita gerta daitezkeen desbideratzeen kontu eman ere. Horrekin batera, bai behin betiko prestaketa-prozesuan, bai hedatze-prozesuan, beharrezkoa da komunikazio-estrategia berritzaile bat. Herritar guztiengana iristeko eta inplikazio kontzientea —ulermenaren bidez— ahalbidetzeko aukera emango duen komunikazio-tresna bat behar da.

Gernika-Lumo, 2024ko azaroaren 19a